

AIZKUNGO IÑAUTIAK ETA EGUN TTUNTUN

Orain aurkezten dizuedan lan honetan, Felix Iriarte Airizkungo atabalaria izanen duzue entzungai, bere herriko iñaute garaia azalduko digularik iñauteak eta egun ttuntun abiapuntutzat harturik. Egun ttuntun haurren iñauteak dira, 18 urtetik beherakoek ezin baitute herriko iñautetan parte hartu ez mozarretzean, ez eta eskera joateko garaian Gaur egun egun ttuntun egun bakar batetara murriztua dagoen arren, garai batean emakunde, gizakunde eta orakunde izeneko hiru jai egunetan zehar luzatzen zen.

Bueno, atsaldeonbat bada. Ni naiz, Felix Iriarte, Aizkungoa. Aizkundarra naiz. Ta tut iruetanogeite emeretzi urte, oai bete berritxuek, ta bizi naiz, Aizkunen sortu nitzen ta Aizkunen bizi naiz, Elixaldea deitzen den etxe batian. Bueno, bizieñ arazoetaz, ibilie naiz kanpuan, enaiz beti errien egon, baño, nere bizie errien da, Aizkunen. Ta bereunten ezkondu nitzen, bereunten familietu nitzen, eta ola, erran dut ja, emen bizi naiz.

Ta orai iñauten afera, nere denboran, nik urte aunitz galdutut bai emendik kanpuan ibilienaiz, bañoalere, emen astenda iñautea, astendire iendiaikin, bereune iñautiak iendia du, ta, aunitz erriten aitzenetzen dire iual soñularien aferaz edo, ezelakozarpatzenal edo istorio, baño Aizkunen beti itentuzte iendiaikin astendire, ta iendiakin, iende goizian gatendire ostature, ta gosaltzeute gaztek, ta, gero been kordionistek eta soñulariek izetentuzte, eta atratzen dire bi aldetara, bi grupo edo bi txandetan, ta zenbaitekartzete unet, Pertalatsaldera, ta Ordoki aldera, eta orrat, eta gero, itzulien tortzendire Ordokinbarna, berriz erreire eta, gero, biamune, astelena, orduen berriz bi txandetan baño, orduen, aldatzendire auzoz. Ja, orduen gatenta Bergaraldera, Aintzialdealdera, Otsanaizaldia, oiek biltzentuzte, ta txanda beexietan gatendire bi txandeta berrizere. Eta, gero, tortzen dire erreire ta errie, bierren eunian biltzeute errie, etxez-etxe ibiltzen dire, ta been musike ta kordioniste ta denaikin, ta bazkaltzera tortzendire zenbaitaldiz baño denak eztire arrimetzen. Zenbait mantsoxo edo batrez iual bazkaltzera, alo. Ta, gero, au bigerrena da, ta gero iruarrena da egunik pollitena, izeten dena. Desfilia izeten da, ta iendia..., astiartian, taorduen beztitzen da artza, orduen beztitzeute artza, orai atia... Ainxuxenkire, guretxian beztitzen da artza, ta damaketa, guretxian beztitzendire. Baño, atratzendire ornonbaitere euerdi aldian edo ola, ta matendiote desfilian mateute erriei buelta, ta gero, ja, bazkaltzeraordeko edo ez, euerdiko baño, bazkaltzeraordeko, ja, akitzeute desfilia, ta artza biluxten da, ta, gaztiak ostature gatendire, ba, soziedadera, ta, ja goizeko afera, ja ineizeten da. Baño, kostumbria da, aurtan eztute bertzeiseindute, baño kostumbria izeten da, atsaldian, bazkalonduan, saardantzariak, lau mutilek, bi daminausiek, bi damuñek eta, bi botilleruek, erriei buelta matendiote. Baituzte beren puntuek, gelditu ta saardantza iteutenak, gero berriz aitzinaogan ta bertzepuntuen, berriz saardantza iteute, ta, gero ja erriei buelta

mateutelaik, ja, akitu de dantzain lana, saardantzaine, baño, orduenizetendagero, frontonian izeten da dantza aparte. Bai, bai.

Eta iñautetako bada ola, jaunzteko maneranbat edo...?

Bai, bai, bai. E, aunitz manera oioiama, zenbait beztitzentzazkitzu xarmanki, arropa ederraikin. Bertziak beztitzentzaizkitzu zakuz iual, ta, (bai, aio!) ta, beztitzeko manera oi de, berexik ezta, berexik ezta..

Eta eskera gaten zatelaik zer artzentuzte puskek edo... dirue?

Bai, denetaik. Kostumbria da, zenbaitetxetan arroltziak, eo zingerra,, ziztorra, artakuaine iual ogie erebai, ta bertzebatzuten, dirue. Baño, dirue iual zenbaitek puskekin batian diruere mateute, baño etxeuzietan mateute zerbaitere. Ta gero tragua, ta ba, oide gazten dibersioa etxez-etxe, or pasteute ongi. Ba, erriko bestetan bañoeki pasteute. Bai, bai, Aizkungo gaztek seurnaiz te... naiotuztela iñautiak, Sanjuanak baño. Beeixteko, bat edo bertze.

Eta artza pasten delaik emendik desfilian, zer da artzak, zeitendu artzak, eta artzaziñek eta ?

Artzak, pues ibiltzen da, einde , animeliein martxan jendiangana gaten da, jendiaizitzen du. Ta, badu zaña orrek, ta, arek sujetatu barrezaitzenda taunitzaldiz ezin inbalu bezala ta, iual artzai kastigetu erebai pixket eta, iual bera azpire boterebai artzak, ta, ara, oi de artzain misionea. Bai.

Eta artzakin batian atratzen dire bertze moxorro batzuk bezala, ta aitzendire jendiai jotzen ta ola, ez ?

Ba, bai. Bada kostumbre aundie, ta leno oño naski geio, zerripizetokiek auntu, ta ek makil beten punten paatu, ta arpatzetzutenak eekin jotzetzuten. Eztute minik iten ek, baño jendiaiziezteute.

Eunttuntun oi eztakit nik noiztikizeindenbaño guk geen denboa guzien zautu dugu eta gure aitzinekoek erebai, eta oi deintzenda egunttuntun deitzeute baño ollarbesta, ollarbesta, ta orakunde, du bereizena orrek, orakunde eta...oaierrautena oi ortzegunaikin izeten da, oi izeten da iñaute aitzineko ortzegune, baño nola eztuten erriguzie kurritzen al aurrek eun betez, pues aitzineko ortzegunian, ta aitzineokuan ta, ibilitzen dire puskebiltzen ta gero egunttuntun egune, ortzegun ortan biltzeute errie, ta ibiltzen dire etxez-etxe, ta baute beren kantue. Naizu ertia orai ? Bakarrik, nik gaur barkatu eztutkantatzenal katarrotuenao, baño da kantuoi :

Egun ttunttun
 biar ttunttun
 etzi ere ttunttuna
 etxeuntan arnoa bada
 guk eztakig zenbana
 zenbana den jakiteko
 dugun ttanttatto bana
 " vamos avilando por el amor de Dios "
 bizarraren iteko (ogi puska bat) zingerpuskabat
 arekin jateko oibazterrekoat
 aingiruek gara
 zerutikeldugara
 boltsa badugu
 dirurikan ez, urtets ! urtets !

Oi dute been kantue bai, barkatu, ni ez naiz mintzetzenal aise katarruabaitut baño, nolabaitere adierazikot zerbaitere, bai. Eta gero, oaierrandugune oi goizian izetenda, erriekurritzeute eta izeteute meza. Ta gero mezonduan, zerbaitere pilota partide edo, zerbait joko bazkalartian, izeteute, ta gero bazkarie. Ta geo, bazkalonduan ja luzarogabe astendire dantzak baituzte silledantzak, eta makildantzak eta ezpatadantzak eta... aunitz dantza klase baituzte eta oiek aitzinetik entseiatzentuzte. Ta oaierrandutena, gero izeten da, gatentuzte ezpatak, ta, ezpata batzuk, ezpata oiektire zurezkuak. Iñekizetendire, beenzintebatzukin te ba plantatzen tuzte propiki ta oi de ollarra arpatzeko ollarra, izeten dire eta, erosten tuzte berek eta nork arpatzen duen ollar ure, gero iten diote kajon batian sartzeute. Lenao etzen kajonian sartzen, lenao itentzen ziloat lurrian ta burue bakarrik kianpora utzi, ta arpateartzuten baño orai frontonian izeten da ta, oi nola eztutentziletzenal pues, izeten kajonbatian ta gero tapatzen diezkatte begiek, ta maten diote martxa, ta batzuk arat bertziak unet orribiltzendie, baño, aunitzaldiz iten diote,

ial gainde bat xuxen-xuxena ta, beldur izeten da ial
kusteute edo ez orduen rakartu kajon ure ollarraikin
taldatzute, ta ja zeñek arpatzen duen ollarra, arendako
izeten da, bai.

Ta oiek gero ze izetendute, artu denak bertze laune edo,
inbiar izeten du ?

Bai. Gero damnausi, ure izeten da damnausi daitzen da, eta,
damnausi arek , pues beardu damuñetxequandria, ta, aixtion
iñautetan eztut erran baño, orduen izeten dire errien izeten
dire bestetako damnausiek. Damnausi oiek baituzte beren
launek, damnausien launek, eta gero damnausi oiek beartuzte
damuñetxequandriak, eta damuñetxequandre oiek beartuzte
berriz aitzine beren launek, eta ola plantatzen dire zortzi,
bi damnausiek, bi damnausien launek, bi, eta...
damuñetxequandriak, eta bi damuñetxequandrian launek. Eta
oi imitetzeute eunttunttunetanere, karo, baño, Sanjuanetan
ta, jakine jendaine izeten da ta beren dantzak baituzte,
aurrek eztuatu dantzaklaseoiek iten baño imitetzentuzte
berdin-berdine dauinausi ta damuñetxequandria ta, ola. Bai,
ta gero, zinte, zintebatzuk izeten tuzte, matendezkate
ollarra arpatzen duenai, eta arek nor beeixten duen
neskatekonbat damuñetxequandretako, ari maten dio zinte. Ta
damuñetxequandria, ta damuñetxequandriaian laune ero,
damnausi ta damuñetxequandria izeten dire. Bai, bai, ola
da.

... Bada, ta, ibili ere ingara aunitz gu dantzataldiaikin ta
oiek baazkite dantzak, baituzte, baño geienian, geienik ola
kanpora atra saardantzak, mutildantzak, ta gaita. Oi gaita,
gaita, gaiteontzen denbora batez ja itzelie, lenao gu gaztiak
ginen denboran izetentzen, orduen, orai sekulako musike karri
ial errire, ta ezta gazteikatrakoreial. Enkambiorduen,
xulubite atratzentzen ta plazara mezpe..., orduen mezpeetara
gatentzen jendia , ta atratzetzen plazara aneoteko, plazara
gaztediguzie atratzentzen, ta leimizikuak izetentziren ta
jotara atratzentzen, eta gero erranduun bezala, baitziren
damnausiek eta damuñetxequandriak eta, damnausiek
atratzentziren zortzikoan, lauek, eta bi damunisiek kurri
seitzentzuten buelta batzuk man ta damnausien launek,
damuñetxequandretara gatentziren, ta gero, artu bazterretik
eta sartzentziren berriz zortzikora, ta an sa ta ja gero
sokadantza dantzatzentzen, bai, ta, gero sokadantzure
dantzatzeikin, ja kostumbria zen oi ta, oi, ta dantzatzeikin
astentzen jota, ta porrusaldak, eta pasakalliak eta, oietaik.
Eta gero ilunaarrian neskatxak, been tenorian
erretietzentzien,, baño erretietu aitzinian, iendero gaite
jotzen tzuten leno, iendero, ta gaite munduguziek bazakien
nola ez, baño, izentzuen denbora bat etzuen iñork gaitik
jotzen ta eontzen gibelatue, ba naiko gibelatue, ta, gero gu

asi ginen dantzarietekin ta istorio,ta gaite gaten ginuen, ta berriz berri-
tu de gaite.

Ta mutildantzak ere zer dire, Bantzanguak, emanguak ?
A, Bantzanguak.

Ta zenbat mutildantza dire edo?
Badire... amaseiotedire, nikuste.

Ta denak diferentziak?
Ba, bai, denak-denak.

Ta mutikoendako bakarrik !?
Mutikoendako bakarrik. Ta aition eztut erran inautetan
aintzelaikerten, orai neskatxak ere ibiltzen dire, baño,
denboa artan etzen inor, neskatx batere ibiltzen, mutil uts-
utsek lenao. bai, bai, ta mutildantzetan ere, etzuten
amititzen neskatxik sartzia. Orain ere, ba oai ere gutti
bai. Ezta oai ere ez. Bat edo bertze badire sartzen direnak
baño ba, gutti.

Ta irridantzak ere zer dire Bantzanguak?
Irridantzak badire, bueno, denak dire, mutildantzak eta
irridantzak eta denak, ogeitebederatzi nikuste. Irridantzak
pues, badire, kataderadantza, gero makildantza, gero...errain
dut...zintedantza,ta, arkudantza, zurumedantza... bai,
aunitz badire, aunitz. Oiek deitzendire mutildantzaz aparte
irridantzak, bai.

Ta oiek noiz dantzatzen ziren inautetan ta bestetan ola,
edo...?
Bai, bueno errien erebai, ba, karo dantzatzentzelaibaño, oiek
geienik, gio izen dute dantzatu, ba, gangaelaik grupuain,
grupuain.

Orduen oiek plazan ta etziren dantzatzen
Bai,bai dantzatzentziren bai. Bai, bai.

Orduen jendeguziek bazazkien oiek!
Oiek, bai lenaoko zaarrek aintseur bai, gero oaierrautena
galdu ziren, aunitz galdu ziren. Berri-
tu ziren aunitz, grupua
asi zielaik. Bai, orai pejeple gaitere itzelik egontzen.

Bai, orain neronek ere badakit gaite !
Bai, seguro baietz, oai munduguziek baaki. Zortzikuare, leno
zortzikua, ba, bai, baño bah! ez aunitz ez. Oai munduguziek
baaki.

Ta zortzikua zer da, dantzatzeko Lantzko zortzikua
bezala baño musike diferentzia, ez?

Bai, musike difeentexao da, baño sartzenda emenguare an, ta angua, angua emen aunitz. Eozein kordionisteketere, Lanzko, jotzeute zortzikua ta, sartukodie Lanzko zortzikuaikin, baño zortzikua dantzatzeko berdin de.

Dantza bera baño musike diferentia
Musike difeentia.

Ta oi ba, Baztanek ja eztu gauze geioik, ola , eztu sekreto aundik !
Eztu misterio aundik.

Bueno pues, milleskerbada.

OHARRAK:

- Grabaketa egin duen pertsonak esaten duena kurtsibaz idatzirik eta ez du dialektoa ezagutzeko balio. Hala ere, Baztango eskuarekin antza eduki dezakeen hizkera bat erabili da Felix ez nahasteko. Puntu honetan saiakera berezia egin dudan arren, berak ezagutzen nau eta badi ez dudala berak erabiltzen duen euskalkian hitzegiten. Hau dela eta, nik fidagarriagotzat joko nuke lanaren bukaera aldera dagoen edozein ezaugarri.
- Silaba bakar batean ai bokalak elkarren ondoan suertatzen direnean, a horrek a eta e-ren arteko ahoskera du.